

**SANTURTZIKO UDAL EUSKALTEGIA ERAKUNDE AUTONOMIADUNAREN
ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN BILERAREN AKTA
2017ko URTARRILAK31**

Santurtziko Udaletxeko Bilera aretoan aipatutako datan goizeko hamar eta erdietan bildu da, horretarako aldez aurretik Presidente jaunak hala deituta, ohiko bileran Erakunde Autonomiadunaren Artezkaritza Kontseilua eta ondorengoak agertu dira:

Presidentea: Danel Bringas Egilior jna.

Bokalak:

Itsazain Ortolatxipi Ibañez jna. Euzko Abertzaleak Udal Taldea
Cristina Senarriaga Rojo and. Euzko Abertzaleak Udal Taldea
Daniel Urkiaga Alberdi jna. Sí Se Puede Santurtzi Udal Taldea
Lorea Artetxe de la Fuenteand. EH Bildu Udal Taldea.
Pedro Miguel Lucena Balda jna. Sozialistak Udal Taldea.

Kontu-hartzaile eskuordetua: Jose Miguel Paredes Cisnerosjna.

Idazkari eskuordea: José Fernando García Pañeda jna.

E.A.aren zuzendaria: Cristina García Pérez and.

Saioari hasiera eman dio Presidente jaunak deialdiko gaiordenean dauden gaiak aztertzeko.

1. SUEren ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN 2016ko AZAROAREN 29ko OHIKO BILERAREN AKTA ONARTZEA, HALA BALEGOKIO

Bilerari dagokion akta aldez aurretik bidali denez, ez da bertan irakurri eta Presidente jaunak bozketari ekin dio. Artetxe andreak abstenitu egingo dela adierazi du ez baitzen bileran izan. Santurtziko Udal Euskaltegia Erakunde Autonomiadunaren Artezkaritza Kontseiluak Presidente jaunaren, Euzko Abertzaleak udal taldeko ordezkarien, Sí Se Puede Santurtzi udal taldearen eta Sozialistak udal taldearen ordezkarien aldeko botoekin (5 boto) eta EH Bildu udal taldearen ordezkariaren abstentzioarekin onartu egin du Artezkaritza Kontseiluaren 2016ko azaroaren 29ko bileraren akta.

2. 2016KO EKITALDIKO KITAPENAREN KONTU-EMATEA

Presidenteak 2016ko ekitaldiko kitapenaren berri eman du.

3. KONTSEILUBURUAREN PROPOSAMENA, S.U.E. AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN ARTEZKARITZA KONTSEILUKO SAIOAK JENDEAURREAN EGITEARI BURUZKOA

Sí Se Puede Santurtzi udal taldeak proposamena aurkeztu du puntu honetan eta hori aztertzeko denbora behar denez, hurrengo Artezkaritza Kontseiluan eztabaidatzeko geratu da. Hala ere, Sí Se Puede Santurtzi Udal Taldeko ordezkariak irakurri nahi zuela adierazi du jasota geratzeko, eta hala egin du. Bukatutakoan Presidenteak eskatu dio aurkezteko denbora errespetatzeko. Urkiaga jaunak baietz erantzun dio, baina lan-kontuengatik ezin izan dutela lehenago bidali.

4. AUTONOMIADUN ERAKUNDE HONEN ARDURAPEAN DAUDEN FITXATEGIEN MOLDAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO. FITXATEGI HORIEK 15/1999 LEGE ORGANIKOAREN 2/2004 EUSKO LEGEBILTZARRAREN LEGEAREN APLIKAZIO EREMUAN SARTUTA DAUDE.

Presidenteak aurreko Artezkaritza Kontseiluan esandakoa laburtu du eta Ranzarik digitalizazioa bai, baina honelako izapiderik ez duela egiten azaldu du. Azalpenaren ostean bozketa egin da eta proposamena aho batez onartu da.

5. PRESIDENTEAREN GAIAK

Presidenteak azaldu du aurtengo aurrekontuan ere 20.000€ izango direla instalazioen konponketetarako eta diru hori lehenengo solairuko argiak aldatzeko eta gelak hornitzeko erabiliko dela.

6. GALDERA ETA ESKARIAK

Lucena jaunak galdetu du Lanbidek sortu behar zituen taldeei buruz. Zuzendari andreak azaldu dio hasieran euskaltegira ez zela talderik joan, baina geroago HABEk taldeak sortzeko zailtasuna ikusita (ordutegi, maila, euskaltegi desberdinak) bidali zuela gutuna azaltzeko taldeak sortu beharrean ikasleei matrikula orria emango zitzaiela euskaltegietara zuzen joateko. Matrikula egindakoa, euskaltegiak HABEri faktura egin behar zion. Ikasturte honetan Lanbideko ikasle bakarra dago.

Ez dago aztertzeko beste gairik eta bukatutzat eman du Presidente jaunak goiburuko eguneko hamarrak eta berrogeian. Horren guztiaren fede ematen dut, Idazkari eskuordea naizenez.

Presidenteak
Danel Bringas Egillor

Idazkari eskuordea
Jose Fernando García Pañeda